



Xabier
Madariaga

Zeberion
ekinez

Zeberiko Udala. Euskera, kultura eta ingurumen arloko aldizkaria, 5. zenbakia



Xabier Madariaga Idirin (Bilbo, 1981) zeberioztar jatorriko euskal kazetaria da. 2003an kazetaritzan lizentziazan zan Nafarroako Unibertsidadean. Ikasketak amaitu orduko, Jerusalem-era joan zan eta hiru urtez israeldarren eta palestinarren arteko gatazkea hurratik bizi izan eban. Beste hainbat gatazken lekuko be izan da, horreen artean, Irakeko Gerra...

Laburrean

- Gustuko dozun janari bat: Humusa. Garbantozko pasta arabiarra da. Oso ona!
- Édari bat: Kalimotxo
- Zaletasuna: Eskia
- Zure txokorik maiteena: Ermitabarri
- Joan ez zaren nazinoren bat, eta gustauko jatzuna joatea: Argentina
- Nora ez zinan bueltauko: leku guztietara bueltau behar da, denporak ekarri dituan aldaketak ikusten!

aurkibidea

Alkarrizketea	2-3
Udalekuak	4-5
Euskalduntzea	6
Euskerea eta teknologia barriak	7
Gomendatutako liburuak	8-9
Albiste laburrak	10
Agendea	11

Xabier Madariaga

eguneroko istorio arruntek beteten nabe gehien

Kaixo Xabier, azaldu ahal deuskuzu noiz hasi zinan lan honetan? Zelan bururatu jatzun kazetari izatea?

Xabier Madariaga.— Txikitatik gura izan dot kazetaria izan. Pseudo-kazetaritzeagaz, txiki-txikitan hasi nintzan. Etxean, Radio Euskadiko boletinak grabau, testuak berridatzi, eta ostean nik lokutore lez grabau egiten nebazan. Zinta horreek berreskuratzea gustauko jatan, baina ez dodaz aurkitzen... Bestelan, benetazko kazetaritzeagaz Iruñean hasi nintzan. Irrati lokal batean ikasten nengoen bitartean (20 urteagaz) bekadun hartu ninduten. Hori lehenengo kontaktu bat besterik ez zan izan, ostean Euskadi Irratiko beka bategaz hasi nintzan. Donostian, udako ikastaroen barri emoten. Han asko ikasi neban, niretzako ulertzen gatx-gatxak ziran ikastaroak, entzuleentzat ulergarriak egiten!

Eta korrenpontsal lez, noiz hasi zinan? Zergaitik? Zelan izan zen hori guztia, aukeratu zinduezan, ala zuk aukeratu zendun?

Xabier.— Korrespontsal lez izan neban lehenengo esperientzia, Erresuma Batuan izan zan. Erasmus egitera joan nintzan, eta Euskadi Irratiarentzat kronikak egiten nebazan astean birritan. Kronika bakotxa airera urten aurretik, goitik behera zuzentzen eusten nire idazkera. Holan be pilo bat ikasi neban, eta ikasturte horretan ikusi neban korrespontsala izatearena interesgarria zala. Erasmusetik itzuli eta ETBn bekadun izan ostean, Jerusalem korrespontsalia zabaltzeko proposamena egin neutsen. Irratiak berehala esan eban baietz. Telebistari pixkat gehiago kostatu jakon, baina azkenean nigaz lan egiteko interesa azaldu eben, eta holan hiru urte pasau nebazan Jerusalem EITBrentzako beharrean. Esperientzia ahaztezina izango da betiko.

Zein nazinotan ibili zara beharrean? Zein dozu gustuko?

Xabier.—Jerusalem nengoenean leku askotara mugitu nintzan: Irak, Egipto, Jordania, Pakistan, Tunez... Madrilen pasautako urte bietan, Yemen eta Kuba ezagutu nebazan. Eta Parisen nagoenetik, bidaia bi egin dodaz: Haitira eta Seychelles irletara. Gustukoen baino, niretzat bereziena dana, Jerusalem da. Han hasi nintzalako benetako korrespontsal beharretan. Ganera Israel eta lurralde palestinarrek, nazinoarteko kazetari gehien jasoten dituan eremua izango da seguruenik, eta agian horregaitik, dan-dana komunikabideei begira prestatuta dago. Israelgo armadak eremu bat itxi, eta informazio puntutik aldentzen gaituenean izan ezik, jakina!

Pertsona ospetsuen ondoan egotea tokauko jatzun. Zeinek inpaktatu zaitu gehien?

Xabier.—Arafati birritan eskua emon neutson, eta hori izan da momentuz inpaktanteena. Kamara eta mikrofono barik sartu ginan bere “Mukata”ra. Herritarrak, palestinarren buruari kaixo esaten sartzen ziran, presidenteari babesa erakusten. Eta kuriosidadea geunkanez, horetariko talde bategaz, Arafaten kuartel nagusira sartu ginan geu be. Eskua emon, kaixo esan eta listo. Ez zan beste munduko ezer izan... Baina XX. mendeko ikur baten aurrean egoteak asko inpaktatu ninduen. Ganera, imajinatu, 22 urtegez hasibarra dan kazetari bat, eta Arafati eskua emoten... jajaja

Nor gustauko jatzun alkarrizketatzea? Zergaitik? Obama? Fidel?

Xabier.— Ez dakit... Interesgarria dan edozer kontatuko deustan nonor elkarrizketatuta, ni pozik nago. Malitik etorritako 16 urteko ume bat elkarrizketatu neban orain dala gitxi Parisen. Bere familiak 3.000 euro ordaindu eutsozan agente faltsu bati, gaztea futbolaren izur bihurtu daiten... Eguneroko istorio arruntek beteten nabe. Pertsonaiaren ospea ez da hain garrantzitsua... edo bai?

Gerra dagoan herrialdeetan egon zara? Arriskutsua izango da, ezta? Zuk bizi izan dozu une arriskutsurik?

Xabier.— Telebistan ikusten dana baino askoz arrisku gitxiago dago. Dana pantailaren bitartez ikusten dana baino askoz normalagoa da. “Normaltasuna” gerra lekuetan be badagoelako. Guk normaltasun hori ez dogu erakusten, albistea ez dagoelako hor... Baina egon badago. Momenturik arriskutsuena? Israel iparraldean bizi neban. Hezbollak “katiusha”k botaten ebazan Libanotik. Zuzeneko konexino baten gengozala kohete jaurtike-ta hasi zan... Zuzenekoagaz aurrera egitea erabagi gendun, eta konexinoa amaitzean berehala bunkerrera sartu ginan. Baina esandakoa, momentuan ez dozu arriskurik ikusten. Bunkerrera sartzean, beste korrespontsal guztiak gauza bera esaten eusten: momenturik onenean egin dozu, oso ondo! Surrealismo puntu bat be badauka...

Anekdotaren bat izango zendun...

Xabier.— Katiushekin kontau deustudan hori... Lankide ohiekaz birrak hartzen gagozanean, pilo bat anekdota etorten jakuz burura... Horreetariko gaba batera apuntatu beharko zara! Jajaja

Gustuko izango dozu zure lana, ezta? Ala nahiago zenduke berton jardutea? Noz arte jarraitzekotan korrespontsal lez?

Xabier.— Kanpoan oso gustura nago. Atzerrian, askoz hobeto egiten da beharra, zure airera, nagusiak urrun izanda... Momentuz ondo nago korrespontsal lez beharrean. Gero gerokoak!

Gaiez aldatuta, zein da Zeberio-gaz dozun hartu-emon? Tarterik daukazunean hurreratzen zara herrira?

Xabier.— Etxera natorren bako-txean, aitite eta amamari bisita egiteko Zeberiotik pasetan naz. Amaren familia osoa Zeberion batzen da astebururo, eta eurekaz oso gustura egoten naz...

Zer da zuretzat euskerea?

Xaber.— Nire hizkuntzea. Gehien egitea gustetan jatanaren ateak, kazetaritza munduaren ateak, euskerak eta Euskadi Irratiak zabaldu eustezan. Eta hori ez da sekula ahazten. Euskeraz kazetaritza ona egiteko aukerak dagoz, eta zentzu horretan gehiago lan egin beharko gendukela uste dot. Euskeraz egindako kazetaritza erakargarriagoa egin behar dogu.

Atzerrian beharrean zagozanean, harrigarri egiten jake besteei euskeraz entzutea? Inoz gertatu jatzu horren inguruan ezer berezirik?

Xabier.— Nik beti azaltzen dot nondik natorren, eta etxean dogun hizkuntzea oso desbardina dala... ezer berezirik? Bai! Behin baino gehiagotan, nazinoarteko kazetari-ek barre egin dabe nigaz, telefonoz “bai” erantzuten dodalako. Inglesez “bye”k, soinu bera dauka, eta agur esanez erantzuten dodalako barre egiten eban batek baino gehiagok. Baina barre sanao zan, eh!





Udalekuak 2010



kuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 20



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010

Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010



Udalekuak 2010

Negu honetan hobetu zure euskara maila

Uda amaitzeagaz batera euskaltegietan izena emeteko epea zabalduko da. Aurten be eskaintza zabala dago inguruko herrietan, eta Zeberioko udalak eukerearen alde daukan konpromisoa berretsiz euskera ikasten/hobetzen daben herritarrei - beti be asistentzia eta aprobetxamentu baldintzak beteten bada-be- dirulaguntzak emongo deutsez.

Aurten bai! Animatu, eta irailean eman izena inguruko euskaltegi baten!

Inguruko euskaltegiak:

- ⊙ Arratiako AEK. Lehendakari Agirre 4, Igorre. Telef: 946315657
- ⊙ Ugaoko udal euskaltegia. Urgoiti pasealekua 55, 2-A, Arrigorriaga. Telef: 944002060
- ⊙ Laudioko AEK. Zubiaur 5, Laudio. Telef: 946726722

Web orrialdeak:

- ⊙ www.aek.org
- ⊙ www.habe.org
- ⊙ www.arrigorriagakoeuskaltegia.org

Ortografia zuzentzailea euskeraz jarri ordenadorean

Zure ordenadoreak ez daki euskeraz? Idazten dozunean gaztelaniara zuzentzen deutsu? Anima zaitez, eta desargau eizu XuXen euskerazko zuzentzaile informatikoa. Ez dauka ezelako kosturik eta eguneroko lanean izugarri lagunduko deutsu!

Izan be, XuXen zuzentzaile informatikoa, euskaraz idatzitako testuen ortografia akatsak detektatu eta zuzendu egiten dauz. Ganera, programa mordo baterako balio dau; Zuzentzaile horren bidez, Word, Power Point Frontpage, Outlook, Open Office eta Excel-eko testuak zuzendu daitezez.

Zeintzuk urrats jarraitu behar dodaz?

Zuzentzailea arazo barik deskargetako eta ordenadorean instalatuko, honako urrats honeek jarraitu:

- www.euskadi.net web gunean sartu.
- erabileremuak → euskara → softwarea deskargatzea
- Zure ordenagailuari jagokon zuzentzailea aukeratu eta klikau
- Diskoan gorde dozun karpetara jo setup.exe fitxategi-an klik bikotxa eginda instalazinoari ekingo joko
- Word dokumentu bat zabaldu eta idatzi zeozer
- Tresnak (Herramientas) → Hizkuntza (Idioma) → Ezarri hizkuntza (Elegir idioma)
- Word zabaltzen dozun guztietan zuzentzailea euskaraz egon daiten, Euskara (Vasco) aukeratu eta lehentsi (predeterminar) klikau
- Soilik uneko testua zuzentzeko Ados klikau



Udan be, irakurri: Zeberioako liburutegiko nobedadeak

Ailegau da uda eta liburuak irakurtzeko denpora gehiago izango dogu danok. Baina, zein liburu irakurri? Hona hemen Zeberioako liburutegian azken hilabeteotan erosi barri doguzan liburu batzuen inguruko informazioa. Badakizu, zatoz liburutegira eta eskuratu libururen bat. Ez zara damutuko!




Nagusientzako elaberriak

Autokarabana



Fermin Etxegoienen lehen eleberrri honetan mundu garaikidea ageri da, errealismoz erakutsia. Protagonistak lan egiten du herri bateko kooperatiban, eta zenbait tramaren erdian aurkituko dau bere burua. Alkarren artean gurutzatzen diran gertakizunek, erritmo bizian kontatuak, irakurlearen arreta hasieratik bereganatuko dabe, eta espero ez dauan amaierara eroango...

Vikingoen sorterrira



Aita ezezagun eta urrundik miretsiaren bila doan neska; ebakuntza larri baten atarian, bere bizitzako amodio sekretua kontatzera doan emakume heldua; familia-giro itogarri batean bere arrebarekiko obsesinotik zelan askatu ez dakian mutila; parkin batean gura barik ume bat zapaldu ostean, erruaren zamari aurre egin behar deutson gizon gaztea ...

Katu jendea



Hemen eta gaur giroturiko zazpi istorio-etan barrena, gizon-emakumeen sentimentu esan bako eta ahultasun ezkutueta arakatzan dau Eider Rodriguezek: desiraren zirrikituak, edertasunaren on-gaitzak, diruaren morrontzak, sexualidadearen ernetzea, ilusinoen itzaltzea ... Lurralde lanbro-tsuetan mugitzen dira ipuin honeek, luma bisturizat hartuta, kontautakoa bezain inportatea dabelarik isildutakoa

Materia liburuak

Euskitz, euskararen nondik norako bitxiak



Hemen eta gaur giroturiko zazpi istorio-etan barrena, gizon-emakumeen sentimentu esan bako eta ahultasun ezkutueta arakatzan dau Eider Rodriguezek: desiraren zirrikituak, edertasunaren on-gaitzak, diruaren morrontzak, sexualidadearen ernetzea, ilusinoen itzaltzea ... Lurralde lanbro-tsuetan mugitzen dira ipuin honeek, luma bisturizat hartuta, kontautakoa bezain inportatea dabelarik isildutakoa

Gazteentzako liburuak

Asier buruhandiaren okerrak




Asier Buruhandia (kexu da Buruhandia abizena munduko abizenen zozketan tokau jakolako, erabat injustua) hamaika urteko mutil bat da, Bilboko Alde Zaharrean bizi dana. "Banda beldurgarri" bateko buruzagia da, honako honeek osotzen dabena: Roke Nazkagarria, Arantza Harroputza, Lina Guzurtia eta Mikeltxu Astuna...

Pirata ausartak



Ane Piratak enkargu bat emon deutso Patakoni: Pirritx, Porrotx, Marimotots eta tripulazinoko gainontzeko kideak marinela eta pirata bihurtu behar dauz lehenbailehen. Urten dira barku pirata baten, eta bere lehenengo abentura bizi izan dabe itsaso zabalean. Baina ez da samurra izan inorentzat...

Lurra kroko



Krokoka mapa bat aurkitu du. Eta, la-gunekin, abentura zirraragarrien bila abiatuko da. Aurkituko ote dute altxorra?


Ipuin kontalariaren arbela



Edurra egin dau gaur, eta zuri dago kanpoa, zuri eskolako patioa: zuri-zuri; eta zuri-tasunaren erdian zuhaitza be zuri, bakar-dadean...

Eta Ipuin-kontalariak ipuin bat kontau deusku: ELEFANTEAREN ipuina, gelako arbela barrian. Eta zein da gelako arbela barria? Bada, leihoko kristala da arbela barria, eta baita patio zuria be. Egia, sudur ondoan begia!

Ehun ipuin hitz gutxitan



Liburu honetan, orain arte erakutsitako irudimena eta umoreaz ganera, bizipenetatik ataratako hausnarketa motz baina sakonak aurkezten deuskuz egileak. Bizitzako kontuak dira, umorez beteak, pentsetako eta gozetako, umeentzat eta ume izan zira-entzat be egokiak. Ehun gutxira.

Bidaia zoroa sagutxistanera



"Gorrote dot bidaiatzea. Zer egiten nabil, orduan, hemen, Sagutxistanen, zero azpian berrogei graduko tenperatura gaz, eta nire familia osoa gazta koloreko autokarabana baten sartuta? Erruduna nire aitita da, Telesforo Lardaskategi, gure argialetxearen sortzailea". Nor da Geronimo Stilton? "Neu naz! Sagu bat burua apur bat hodeietan edukitzen dauena... Egunkari baten zuzendaria naz, baina idaztea da gehien maite dodana". Abentura eta umorea dira nagusi bilduma honetako liburu guztietan.

Tutankamonen amona arbela



Fogvilleko museoa Antxinako Egiptori buruzko erakusketa jarri ebela jakin nebanean, hegan egin neban pozaren pozez! Neure begiez momia bat ikusteko irrikitan nengoan eta, halandaze, Silver anai-arrebak konbentzidu nebazan inaugurazina joateko. Baina nik ez nekiana zan museoko momia bizi-bizirik egoala, eta hori gutxi balitz, saguzarrei gorrotoa eutsela... Beldur-meldur!!!

Mintzo naiz isilik...



Juan Kruz Igerabidek liburu barri bat eskaintzen deusku, igarkizun liburu bat. Urte askotan zehar landu eta esperimentatuko igarkizunak dira: egileak berak sortutakoak. Ez dira gatx-gatxak, baina ezta errazegiak be; pentsarazi egiten dabe. Horreek osotzeko, dedukzinoa, metafora eta antzekotasuna erabili dira nagusiki. Igarkizunen erritmoa eta ikutu poetikoa be asko zaindu dauz egileak...

Txori kantariak, poeta hegalaria



Hamahiru txoriren txiriluruliak dozuz orrialde honek, edo hamahiru poetaren hegaldiak. Txoriak poeta diranean eta poetak txori, gauza ederra da kantuz hegan egitea. Ederra, baita be, kantu hori entzutea, ikustea eta sentitzea.

Eskualdean mugikortasun iraunkorra bultzatzen

Nerbioi-Ibaizabal Udaltalde 21ak, Nerbioi-Ibaizabalgo Mugikortasun Iraunkorrerako Eskualde Plangintza egingo dau urtea amaitu bitartean. Mugikortasunaren inguruko erabakiak hartzeko uenean tresna dokumentaua eta partizipatiboa izatea da proiektu honen asmoa.

Mugikortasunaren eskaera eta beharra arrazionalizatu behar dago eta, batez be, garraio modu desbardinaren arteko banaketeta eta garrantzia modu eraginkorren alde orekatu beharra dago. Hau da, kotxea norberak bakarrik erabiltearen kaltetan, beste aukera iraunkorragoak sustatu beharra dago: garraio kolektiboa (trena, metroa eta autobusa), ez motorizua (txirrindula eta oinez ibiltea) zein intermodalitatea. Hau da, Mugikortasunaren kultura barria txertatu beharra dago pertsonen eta enpresen ohituretan.

Modu honetan, aurre egin ahal izango jaku gaur egungo hainbat arazori: airearen kalidadeari, CO2 isurketei, zaratei, kongestioari, irisgarritasunari eta bide-segurtasun ezari.

Proiektu honek, baita be, enpresen mugikortasuna berrantolatzen lagundu leike, eta merkantzien zein beharginen joan-etorrien ohiturak aldatu, garraio kolektiboa eta trenbidea erabiltea bultzatuz zein lanpostuengako irisgarritasuna hobetuz.

Honeguz guztiagaz gura dana hauxe da: eskualde mailako ikuspuntutik lan egitea garraio publikoaren sarea, ibilgailuen trafikoa, herrien arteko bidegorrien sarea, herrien arteko oinezkoen konexinoa eta aparkalekuen politika koordinatua. Eta modu honetan udal zein udalaz gandiko planifikazioa eta jarduerak mugikortasunaren esparruan erraztea eta aurreratzea. Honetarako guztirako herritarren eta mugikortasunagaz interesa daukien eragileen parte-hartzea behar-beharrezkoa izango da.



San Antolin jaiak 2010



Abuztuak 29, domeka

10:30etan "Asel Ozerinjauregi" XVI.
memoriala. Txirrindulari lasterketea
kadete mailan.

Irailak 2, eguena

12:00etan Jaien hasierea. Txupinazoa
Jumping Sky (egun osoan)
12:30etan: Mezea
18:00etan Pala txapelketearen finala.
21:00etan Herri afaria: Txahal errea
23:00etan Erromeria "Orots" taldeagaz

Irailak 3, barikua

12:00etan Puzgarriak
18:00etan Pirribx eta Porrotx pailazoak
21:00etan Play back-a
22:00etan SOKAIDE folk taldearen.kontzertua
00:30etan Berbenea "AMAIUR" taldeagaz

Irailak 4, zapatua

12:00etan Kalejirea txistulariekaz
14:00etan Tortilla, Marmitako eta bakailao
txapelketea.
Aurkezteko ordua: 14:00etan
23:00etan Rock kontzertua: BANDA BASSOTTI

Irailak 5, domeka

11:00etan Korrika lasterketea
12:30etan Mezea. Laura Orueren aldeko XI.
urteurren mezea
13:30etan Bits jaiak
17:00etan Kart zirkuitoa
19:00etan Umeen futbito partiduak.
21:00etan Zeaniko antzerki taldea

Irailak 6, astelehena

12:00etan Ume eta gazteentzako jolasak
14:00etan Poteoa trikitixeagaz
15:00etan Indababak lagun artean
19:00etan Umeen esku pilota partiduak



ZEBERIOKO UDALA

Zubialde 10

Tf.:94 648 10 79

www.zeberio.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO